

GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO HEZKUNTZA: NAZIOARTETIK EUSKAL HERRIRA

Jon-M. Landa Gorostiza

Zuzenbide Penaleko Irakaslea (UPV/EHU)

Giza eskubideetarako zuzendari ohia (EJ)

Aurkibidea/Gidoia

1. Sarrera
2. Nazioarteko estandarrak
 - 2.1. Nazioarteko giza eskubideak eta hezkuntza
 - 1948ko aldarrikapen unibertsala
 - 1966ko itunak
 - Sektorekako itunak
 - Giza eskubideen hezkuntza: sorrera eta agiri nagusiak
 - Hamarraldia
 - Munduko Programak
 - 2.2. Europako testuingurua
 - Aurrekari batzuk
 - Giza eskubideen hezkuntzaren “aldarrikapena” (Charter 2010)
3. Nazioartetik Euskal Herrirantz
 - 3.1. Estatuko testuingurua
 - Lotura giza eskubideen estandarrekin
 - Giza eskubideen aldeko hezkuntzaren gaineko erreferentziak
 - 3.2. Euskadiren bilakaera
 - Aurrekariak (90 hamarkadan)
 - Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako Euskal Plana (2008-2011)
 - Bizikidetasun Demokratikoa Sustatzeko eta Indarkeria Deslegitimatze Plana (2010-2011): “birformulazioa”.
4. Etorbizuneko erronka
 - Giza eskubideen hezkuntza-definizioa eta erakunde-eredua.
 - Bakegintza eta giza eskubideen hezkuntza:
 - diagnostikoa
 - zuzeneko eta zeharkako bake-hezkuntza
 - azkeneko proposamenak

1. SARRERA

Lan honen **helburu nagusia** da aurkeztea zer eduki eta zer modu izan behar duen giza eskubideen aldeko hezkuntzak eta bake-hezkuntzak gure Euskal Herriko gizartean. ETAk behin betiko su-etena aldarrikatu duela aintzat harturik, nola eratu beharra dago hezkuntza hori? Nola lagundu dezake gizartegintzan, oro har, eta, bereziki, bakegintzan? Bizi izan dugun indarkeriarekin lotu beharrekoa da? Alegia, egoera horren ondorioa da? Edo, bestela ere, ekin beharreko kontu bat al da? Ba al da eskola formalari dagokion ezer? Haratago doa? Nori dagokio gai horri bultzada ematea (lidergoa)? Zer da premiazkoa? Zer garrantzitsua (estrategia)? Zer eduki landu behar da?

Aipatutakoak helburu izanik, ez dugu espero galdera guztien erantzun argi eta biribilik, baizik eta hausnarketa bat sustatzea galdera horien inguruan. Eta, horretarako, nazioartean dauden estandarrak, erreferentziak, izango dira **abiapuntu**. **Nazioarteko giza eskubideen zuzenbidean** ditugu giza eskubideen definizioak, edukiak, obligazioak, gomendioak... Horrek ahalegin bat dakar, baina, aldi berean, ziurtasuna (erreferentzia-marko bat) ematen digu; izan ere, gure gizartean hain ohikoa den polarizazio politikoan, ematen du kolore ideologikoak edota politikoak dena baldintzatu eta kutsa dezakeela. Errepide-orri bat izatea, unibertsala, guztiontzako –baita euskaldunontzako ere– loteslea eta orientabidezkoa, hortaz, **aukera** bat dugu, zama baino.

Hori dela eta, lehenik eta behin, merezi du deskribatzea nola sortu zen **giza eskubideen aldeko hezkuntzaren gaineko kezka** nazioartean, aurrean dugun erronkari neurria hartzeko balioko digu-eta horrek. Izan ere, giza eskubideen aldeko hezkuntza –jada aurreratu beharra dago– **jaioberria** da, eta, hortaz, antsietatea eta espero ditugun emaitzen inguruko irrika apaldu beharra dugu. Gutxi batzuek jorratu duten bide batean sartuko gara: gehiena egiteke egonik, aitzindariak izango gara. Horrek ausardia eskatzen du, baina, aldi berean, baita tentuz ibili beharra ere.

Nazioarteko ikuspegia aurkezturik (batez ere, Nazio Batuetako Giza Eskubideen Goi Agintariaren ikuspegitik), begirada zorrotzuko dugu, eta European ditugun toki-estandarrak aztertuko ditugu.

Sorrera eta estandarrak identifikaturik, gure herrira begiratzeko momentua izango da. Orain arte egin den bidearen azterketari ekingo diogu; ez suntsitzailea izan nahi duen kritika bat egiteko asmoz, baizik eta gaiaren gaineko diagnostiko bat egiteko. Diagnostikoa egiteko orduan, Espainiako estatuaren testuingurua ere aipatuko dut, hango joera batzuetan txertatzekoa baita eskuartean darabilgun gaia. Diagnostikoak, diagnostikoaren argi-ilunak, abiapuntuaz jabetzen lagunduko digu, etorkizunari begira gaiotan nola jardun behar dugun hausnartzeari begira: etorkizuneko erronkari begira, alegia.

2. Nazioarteko estandarrak

Giza eskubideez hitz egiten hasten garenean, lehenengo unetik hasita argitu beharra dago termino horrek hiru adiera izan ditzakeela gutxienez. Lehenengoan, “giza eskubideak” oso zentzu zabalean erabiltzen dira, filosofia edota zuzenbide-filosofiaren

ikuspegitik, justiziaren ideiarekin loturik, giza eskubideek justizia-kode ideala ematen baitute aditzera. Adiera hori gizateriaren historiarekin bat dator honako ideia honetan: gizakia existitzen denez geroztik, haren arrastoak arakatu egin daitezke (horra hor zuzenbide naturalaren aurrekaria edota, atzerago begira, erromatarren eta grekoen kulturaren ekarpenak, Hammurabi kodea, eta abar). Lehenengo zentzu horretan, zentzu ez-juridiko batean hitz egiten dugu giza eskubideez.

Zentzu modernoan, ordea, giza eskubideak Frantziako Iraultzarekin batera sortu ziren, herritarrak (burgesia) Estatuaren botere absolututik defendatzeko nahian. XVIII. eta XIX. mendeen arteko iraganbidean, eskubideak aldarrikatzen hasi ziren (esate baterako, Frantzia eta Amerikaren kolonietan), eta horrek badu zentzu politiko bat: botereak herritarrak nahierara eta injustiziaz zapaldu ditzakeen neurrian, herritarrak babestu egin beharra dago. Estatua Leviathan munstro mitologikoarekin identifikatzen zuten (Hobbes-en ikusmolde klasikotik); kontrolpean izan beharreko munstro bat, minik egin ez dezan. Eskubideen eskutik etorri ziren kontrola, muga eta bermea; pertsona ooren giza eskubide modernoek eskutik, hain zuzen.

Bigarren adiera, ordea, ez da unibertsala. Eskubideak estatuz estatu aitortzen zituzten (geroago, estatuetako konstituzioetan txertatu zituzten), baina Bigarren Mundu Gerraren ondoren iritsi zen giza eskubideen aitortpen orokor eta unibertsala; batez ere, naziek eragin zuten trauma kolektiboaren ondorioz. Hala, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala iritsi zen. Genozidioa, holokaustoa, lehergailu atomikoa eta halako gertaeren ondoren, gizabanakoaren duintasuna beste edozeren gainetik aldarrikatu beharra zegoen; estatuen botereen gainetik, batez ere. Hirugarren adiera, hortaz, nazioarteko giza eskubideen zuzenbidearekin lotuta dago: giza eskubideak nazioarte-mailan identifikatzen eta definitzen dira.

2.1. Nazioarteko giza eskubideak eta hezkuntza

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala (1948) garrantzi handiko erreferentzia historiko bat izan zen; izan ere, instantzia unibertsal batek lehen aldiz aldarrikatu zuen zer eskubide errespetatu behar zaizkigun denoi. Gizakiak izatea da eskubideak izateko arrazoi bakarra.

Ikuspegi juridikotik asko eztabaidatu da Aldarrikapen Unibertsalak zein puntutaraino duen indar “loteslea” edota zein puntutaraino den orientabide moral bat besterik ez. Eztabaida juridikoa gorabehera, gaur egun, denon –legelari zein ez-legelarion– erreferentzia bilakatu da, eta giza eskubideen konstituzioa-edo da guretzat. Aldarrikatzen diren eskubideen edukiaz berri zehatzagoak nahi izanez gero, aldarrikapenari buruzko nazioarteko itun edo hitzarmenetara jo beharra dago.

Izan ere, aldarrikapen horren ondoren, tresna zehatzagoak sortu ziren, hala nola nazioarteko itunak, 1966an. Itun horiek, eskubide zibil eta politikoez gainera (giza eskubideen lehenengo belaunaldia), eskubide ekonomiko, kultural eta sozialak ere (giza eskubideen bigarren belaunaldia) bildu zituzten.

Aldi berean, hitzarmen espezifikoak ere agertu ziren, hainbat gairi buruzkoak: genozidioa, arraza-diskriminazioa, langile etorkinen aurkako diskriminazioa, emakumeen aurkako diskriminazioa, tortura, haurren eskubideak, eta abar. Horri

esker, batetik, giza eskubideen babesaren eremu substantiboa (eskubideen definizioa) zabaldu da, eta, bestetik, eskubide horiek betetzea bermatzeko eta betetzera behartzeko mekanismoak hobetu eta zehaztu dira (estatuek bete behar duten txosten-sistema, demanda indibidualak aurkezteko aukera, giza eskubideen adituen bisitak egoera salatzeke...).

Baina, eskubideak aldarrikatzeari eta eskubide horiek egiaz ezartzeko eta bermatzeko borrokari zor zaion begirunea gorabehera, orain dela gutxi arte, nazioarteko erakundeak (eta, bereziki, Nazio Batuak) ez dira jabetu beharrezkoa zela giza eskubideen aldeko hezkuntzari buruzko lan *sistematiko, koordinatu eta iraunkor* bat egitea. Gerra Hotzaren garaiko blokeen arteko aurkaritza ideologikoa gainditu ondoren etorri zen, segur aski, aurreko mendearen 90eko hamarkadan, giza eskubideen kultura bat eta batera bultzatzeko jokaleku egokia; betiere, giza eskubideak eskakizun zatiezintzat, elkarren mendekotzat eta unibertsaltzat hartuta. Une horretara arte, estatu batzuek eskubide zibil eta politikoak lehenesten zituzten; beste batzuek, berriz, eskubide sozial, ekonomiko eta kulturalak lehenesten zituzten. Guda ideologikoak politika sartu zuen giza eskubideen alorrean; ondorioz, nazioarteko lana blokeaturik gelditu zen neurri handi batean. Alemaniako harresia erori ondoren, blokeen aldia gainditzeko bidean, aukera sortu zen, hortaz, giza eskubide guztiak –lehenetsun politikorik gabe– serio hartu eta mundu-mailan bultzatzen saiatzeko.

Horren isla dugu Vienako Konferentzia, Nazio Batuek bultzatua (Viena, 1993): Giza Eskubideei buruzko Munduko Konferentzia inflexio-puntutzat hartu behar da. Lehenengo aldiz, giza eskubideak definitzeaz edota bermatzeaz gain, begi-bistako bilakatu zen ezagutzera eman behar direla eskubideak berak. Konferentzia horren azken deklarazioan eta ekintza-programan, zehatz-mehatz bildu zuten ezinbestekoak direla giza eskubideei buruzko hezkuntza, trebakuntza eta informazio publikoa, komunitateen artean harreman egonkor eta harmoniatsuak ezartzeko eta sustatzeko, eta baita elkar ulertzea, tolerantzia eta bakea bultzatzeko ere. Horretaz gainera, konferentziak estatu eta erakundeei eskatu zien **honako gai hauek biltzeko irakaskuntza akademikoa eta ez-akademikoa ematen duten erakunde guztien ikasketa-programetan: giza eskubideak, zuzenbide humanitarioa, demokrazia eta legearen nagusitasuna.**

Vienako Konferentziaren ondorioz, Nazio Batuen Elkartearen Batzar Nagusiak **Nazio Batuen hamarraldia giza eskubideen arloko hezkuntzaren alde** izendatu zuen **1995-2004** aldia, 1994ko abenduaren 23ko 49/184 Ebazpenaren bitartez. Hala, esparru horretan, jardun-programa orokor bat ezarri zuten. Haren ardatz nagusia: estatuek edo eskualde-erakundeek beren ekintza-plana aurkeztu behar dute. Alegia, Giza Eskubideen Plana egiteko obligazioa dute. Hamarraldi horretan, honako helburu hau lortu nahi zuten: jardun koordinatu eta homogeneousan oinarritutako sare-egitura bat diseinatzea mundu-mailan, guztiok ere hizkuntza, tresna eta xede berekin jarduteko. Gainera, egitura hori plangintza estrategiko baten bitartez garatu beharra zegoen, eta plangintza horren emaitzak ebaluatu behar ziren, giza eskubideen kultura hedatzearen aldeko ahaleginak berriz ere bideratzeko eta hobetzeko. Hamarraldiaren jardun-programa orokorrak eta ekintza-plan nazionalen egiturak honako abiapuntu hau izan behar zuten: munduko eta tokiko premien diagnostikoa eta ebaluazioa ezartzea, eta, ondoren, giza eskubideei buruzko programa zehatzak diseinatzea trebakuntzaren, sustapenaren eta hedapenaren arloan. Zehatzago, koordinazio-zentroak eta baliabide-zentroak ezarri beharra adierazten zuen. Eta, azkenik, programak ebaluatzen irizpideak ezarri zituen.

Nazio Batuetako Giza Eskubideen Goi Agintariaren irudia sortu berria zela, haren esku geratu zen hamarraldirako finkatutako lana, eta, UNESCOrekin batera, idazkaritza teknikoak osatu zuten. Vienako Konferenziaren beste ondorio bat izan zen, halaber, ohiz kanpoko mekanismoak bultzatzea, eta, hala, harrezkeroztik giza eskubideen aldeko hezkuntzaren erronkari lotuta geratu ziren bai goi-agintaria (eta haren bulegoa), bai Giza Eskubideen Batzordea –gaur egun Giza Eskubideen Kontseilua deritzona–.

Giza eskubideen arloko hezkuntzaren alde Nazio Batuen hamarraldiak hasitako lan eskerge horrek ez zuen denbora-mugarik ezarri nahi. Aitzitik, nazioarteko komunitatea mugiarazi nahi zuen, oinarri sendoak ezartzeko eta oinarri horien gainean etengabe eta iraunkortasunez aurrera egiteko. Horregatik, hamarraldia amaitzean eta programaren emaitzak ebaluatu ondoren, jardun-programa bat jarri zuten abian. 2004ko abenduaren 10eko 59/113 Ebazpenean, NBEren Batzar Nagusiak **Giza Eskubideetan Oinarritutako Hezkuntzarako Mundu Programa** aldarrikatu zuen. Programa 2005eko urtarrilaren 1ean hasi ziren gauzatzen, eta ondoz ondoko zenbait etapatan egituratu da, giza eskubideen arloko hezkuntza-programak sektore guztietan gauzatzea sustatzeko. Zehatzago, eta, mundu-programaren lehen etapari begira (**2005-2009** aldia), Batzar Nagusiak **giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzarako ekintza-plana** onartu zuen **lehen eta bigarren hezkuntzako sistemetarako**, 2005eko uztailaren 14ko 59/113B Ebazpenaren bitartez (A/59/525/Rev.1 agiriaren bitartez berrikusia).

Mundu-programaren bigarren etapa **2010-2014** eperako dago aurreikusita, eta haren helburua zera da: giza eskubideen arloko trebakuntza sustatzea goi-mailako hezkuntzan (unibertsitateetan) eta baita funtzionario publikoen artean ere (militarrak, poliziak, eta funtzionario publikoak oro har). Giza Eskubideen Kontseiluak emandako 12/4 Ebazpenaren ondorioz, Nazio Batuetako Giza Eskubideen Goi Agintariaren Bulegoak ekintza-plan bat prestatu du (A/HRC/15/28 agiria); gainera, egitasmoa bultzatzen eta koordinatzen dute bulego horretatik.

Laburpena. Nazioarteko giza eskubideak 1948. urtean aldarrikatu arren, 1977. urtean garatu eta sartu ziren indarrean (1966ko itunak urte horretan sartu ziren-eta indarrean). XX. mendearen 80ko hamarkadan, sektorekako itunak bultzatu zituzten (tortura, haurren eskubideak...). 90eko hamarkadan, giza eskubideen aldeko **hezkuntzaren** garrantziaz jabeturik, hura antolatzen hasi ziren mundu-mailan; Nazio Batuetako Giza Eskubideen Goi Agintariaren Bulegoaren lidergoan, batez ere. Bulegoak lan handia egin du, bai hamarraldian (1994-2004), bai mundu-programan (2005-2009; 2010-2014), estatu eta eskualdeek planak egin eta plan horien barruan programak txerta ditzaten. Mundu-mailan, hortaz, kasurik onenean, 18 urte daramatzagu erronka horri eutsi nahian. Ikus dezagun, orain, labur, European zer isla izan duen joera unibertsal horrek.

2.2. Europako testuingurua

Korronte unibertsal horrek, bestalde, oihartzun berezia du izan Europako eskualdeen eremuan. Ereku horretan, bereziki pizten ari da herritartasunaren, balio demokratikoen eta giza eskubideen arloan hezkuntza-alderdiak indartzeko kontzientzia.

90eko hamarkadatik aurrera, **Europako Kontseiluak** bereziki areagotu zuen giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzako jarduera. Horren adibiderik argienetako bat dugu Legebiltzarreko Batzarraren 1346/1997 Gomendioa, Giza Eskubideen Aldeko Hezkuntzari buruzkoa, Nazio Batuen hamarraldiarekin bat egiteko deia egiten duena: giza eskubideen aldeko hezkuntza-sistema maila guztietan txertatu behar dela adierazten du, eta maisu, irakasle, funtzionario publiko, polizia, kazetari edota politikarientzako trebakuntza-programak sustatzen. Harrezkeroztik, beste ekimen askoren artean, **Hezkuntzaren Bidezko Herritartasunaren Urte Europar** izendatu zuten 2005. urtea. Nazio Batuen hamarraldiaren kasuan bezala, esku-hartzean etenaldirik ez ezartzea lortu nahi izan zuten izendapen horren bitartez. Hala, xedea zen herritartasunaren aldeko hezkuntza eta giza eskubideen aldeko hezkuntza hezkuntza-politiken funtsezko helburu bihurtzeko lan jakin bat (handik aurrera irauteko pentsatua) egiten hastea.

Aurrekariak gorabehera¹, gaiotako agiririk garrantzitsuena dugu, ziurrenik, Europako Kontseiluaren Ministroen Batzordeak 2010ean onartu zuen Aldarrikapena edo Karta.²

Karta horretan, hamarraldiaren aldean, elkarrekin lotu zituzten giza eskubideen eta herritartasun demokratikoaren aldeko hezkuntza. Baina, hamarraldian bezalaxe, honako ideia nagusi hauek azpimarratu zituzten:

- Giza eskubideen aldeko hezkuntza eskubide bat da, denona.
- Bizitza guztian zehar gureganatzeko eskubide bat da.
- Hezkuntza-sistema formalean ez ezik, ez-formalen zein informalean ere aintzatetsi behar da (arloan horretan, parte-hartze handia izan behar dute bai gobernu kanpoko erakundeek, bai gazte-elkarteek).
- Eskolan bertan sustatu beharra dago demokrazia; ez teoriarik bakarrik, baizik eta baita jarduteko orduan ere. Horrenbestez, denon erantzukizuna da demokrazia eguneroko praktikan/funtzionamenduan sustatzea.
- Funtsezko balioak izan behar dute honako hauek: berdintasuna, kulturartekotasuna, tolerantzia, gatazkak modu baketsu batean konpontzea eta pertsona ororen duintasuna.
- Heztea ez da jakintza handitzera murrizten; aitzitik, inguruko gizartean giza eskubideak egikaritzen laguntzea ere bada heztea.
- Hainbat pertsonaren arteko lana behar du izan: eskolako profesionalak, gurasoak, gazte-elkarteetako ordezkariak, komunikabideak, politikariak, gobernu kanpoko erakundeak.

¹ Recommendation 1849 (2008) for the promotion of a culture of democracy and human rights through teacher education; Declaration by the European Ministers of Education on intercultural education in the new European context (2003); Recommendation (2002)12 of the Committee of Ministers to member states on education for democratic citizenship; Resolution on Results and conclusions of the completed projects in the 1997-2000 medium-term programme (2000); Resolution 1193 (1999) on Second-chance schools – or how to combat unemployment and exclusion by means of education and training; Recommendation 59 (1999)1 on "Europe 2000 - Youth participation : the role of young people as citizens"; Recommendation 1401(1999) on Education in the responsibilities of the individual; Recommendation 1346 (1997)1 on human rights education; Recommendation R (85)7 on Teaching and Learning about Human Rights in Schools, adopted by the Committee of Ministers on 14 May 1985.

² Recommendation CM/Rec(2010)7 of the Committee of Ministers to member states on the Council of Europe Charter on Education for Democratic Citizenship and Human Rights Education.

- Trebakuntza funtsezkoa da. Trebakuntzak behar besteko bitartekoak behar ditu, eta egitarau jakinak zehaztu behar ditu.
- Giza eskubideen aldeko hezkuntza aurrera eraman beharra dago, eta, ildo horretatik, nazioarte-mailako elkarkidetzak bultzatu behar da, eta praktika onak trukatu eta partekatu.
- Giza eskubideen gaineko ikerkuntza bultzatu beharra dago.
- Ebaluazioa ezinbestekoa da.

3. Nazioartetik Euskal Herrirantz

3.1. Espainiako estatuko testuingurua

Espainiako 1978ko Konstituzioan, 10. artikuluan dago txertatuta giza eskubideen arloko nazioarteko tresnetatik bertako ordenamendurako trantsizioa:

1. Pertsonaren duintasuna, hari datzekion eskubide bortxaezinak, pertsonalitatearen garapen librea, legearekiko eta gainerako eskubideekiko errespetua dira ordena politikoaren eta bake sozialaren oinarri.

2. Konstituzioak onartzen dituen funtsezko eskubideei eta askatasunei buruzko arauak Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren eta gai horiei buruz Espainiak berretsi dituen nazioarteko itunen eta akordioen arabera interpretatuko dira.

Espainiako Konstituzioak, hortaz, 10.2 artikularen arabera, mundu-mailako giza eskubideen estandarrekin bat etorri behar du, halaber. Arestian deskribatu dugun joera unibertsala eta Europa mailakoa, beraz, giza eskubideen aldeko hezkuntza kontuan eduki beharrekoak dira. Ez da hau horrek dakarren indar loteslea aztertzeo lekua. Esan dezagun, laburbiltzekotan, ez dagoela obligazio sendorik aipatu ditugun estandarrek betetzeko, baina bai obligazio moral bat (soft law), bederen; teorian, Espainiako estatua obligazio moral hori betetzeko prest dago, Nazio Batuetan egon badagoelako, giza eskubideen arloko erakunde nagusietan parte hartzen duelako eta giza eskubideen arloko nazioarteko itunak izenpetu eta berretsi dituelako, eta legez barneko ordenamendu juridiko horiek ere bilakatu.

Aipamen orokorretatik aipu zehatzetarako bidean, 27/2005 Legea dugu gai horiei buruzko erreferentziarik garrantzitsuenak: **Bakearen Hezkuntza eta Kultura Sustatzeko 27/2005 Legea, azaroaren 30ekoa**, hain zuzen ere. Lege horretan, bake-hezkuntza giza eskubideen aldeko hezkuntzarekin batera bultzatu beharra azpimarratzen da. Eta, beste alde batetik, **herritartasunaren eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren irakasgaia** dugu, 2006an sortu zena, Europako Kontseiluak bultzatutako joerarekin bat etorritik. Jakina denez, irakasgaia desagertu egingo da, jada Espainiako gobernu berriak esan berri duenez, eta, haren ordean, Konstituzio Hezkuntza Zibikoa-edo bultzatuko omen dute.

3.2. Euskadiren bilakaera

3.2.1. Aurrekariak

Nazioarteko testuingurua deskribatzean adierazi dugunez, giza eskubideen aldeko hezkuntza-arloko politikak ez zituzten erakunde ofizialen agendan txertatu 90eko hamarkadara arte (NBEen edota Europako Kontseiluan).

Giza eskubideen aldeko hezkuntza sustatzeko kontzientzia nazioartean piztearekin batera (Giza Eskubideei buruzko Munduko Konferentzia, Viena, 1993), Euskadin ere, laurogeiko hamarkadaren amaieran, gai horren inguruko kezka pizten hasita zegoen. Baina gizarte-dinamika horrek bazeukan oztopo zehatz bat: Euskadin, ia ezinezkoa zen alderdi politikoak bat etortzea giza eskubideei buruzko agiri baten inguruan. Denek aipatzen zituzten giza eskubideak, baina, hortik aurrera, alderdi bakoitzaren ikuspegiak inposatutako lehiak ez zien lekurik uzten bakearen eta giza eskubideen balioetan oinarritutako hezkuntza-estrategiari eta halako ekimenei.

Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoan, lan horiek 90eko hamarkadan hasi ziren egiten, nazioartean giza eskubideen aldeko hezkuntzaren hastapenak ezagutzen ari ziren garai bertsuan. Zehatzago, 1997. urtean, UNESCOrekin elkarlanean hasi zen Eusko Jaurlaritza, eta, Parisen, *Elkar Ulertzerako Memorandum* bat sinatu zuten, bakearen kulturaren arloko proiektuak garatzeko. 1998an, erakundeek, Euskadin bakean oinarritutako hezkuntzaren alorrean diharduten gizarte-erakundeekin batera, lehen diagnostikoa landu zuten: “Bakean oinarritutako hezkuntza bat eskaintzea Euskal Herrian. Bakean oinarritutako hezkuntza bat Euskadin indartzeko eta garatzeko oinarri eta proposamenak”.

2000. urtean, Bizikidetzaren eta Bakearen aldeko Hezkuntza Programa onartu zuen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, honako uste honetatik abiatuta: hezkuntza-sistemak pertsonak prestatu behar ditu demokrazian elkarrekin bizitzeko printzipioaren arabera, eta horrek esan nahi du giza eskubideetatik, justiziatik eta arrazako, generoko edo erlijio diskriminazioaren aurkako borrokatik abiatu behar duela hezkuntzak zuzenean. Bestea onartzearen, ahulenekiko elkartasunaren eta gure ekintzen erantzukizunaren aldeko hezkuntza sustatu behar da. Ildo beretik doaz Hezkuntza Berriztatzeko Programak (2003-2006) ere, eta, halaber, bizikidetzan eta bakean oinarritutako hezkuntzari ematen diote lehentasuna, eskolari buruzko hausnarketa egiteko prozesuari hasiera emateko, eta eskola herritartasuna eraikitze eta desberdintasun pertsonalak eta kulturalak errespetatzeko tokia izan dadin.

Aldi berean, Kultura Sailaren Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzak sustatutako Gazte Planean, zeharkako helburu bat bildu zuten; batetik, balioetan oinarritutako hezkuntzaren bitartez indarkeriazko portaeren inguruan kontzientziatzeko eta hari aurrea hartzeko, eta, bestetik, elkarriketan eta parte-hartzean trebatzeko, gatazkak konpondu eta bizikidetzara erraztearren.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila eta Kultura Saila elkarlanean jarduten hasi ziren gaiotan, eta horrek egoera-mapa bat egiteko talde tekniko eta adituak eratzea ekarri zuen 90eko hamarkadan, bizikidetzaren eta bakearen aldeko hezkuntzaren inguruko errealitatea, premiak eta proposamenak deskribatzeko xedez, hezkuntza formalari eta ez-formalari dagokienez. Euskadik arlo horretan zuen egoeraren diagnostiko globala 2004an eta 2005ean argitaratu zuten, plangintza estrategiko sendo eta iraunkor bat garatzeko asmoz.

Ikasgeletan ez ezik, gizarte osoan ere bizikidetzaren eta bakearen alde jarduteko sare bat osatzeko, hainbat esku-hartze jarri zituzten abian; besteak beste, gobernuz kanpoko erakundeen eta udalen proiektuen bitartez bereziki, honako helburu nagusi hau zutela: giza eskubideak jardun indibidual eta komunitario orearen ardatz bihurtzea. Horretarako, Giza Eskubideen Zuzendaritzak diru-laguntzen berariazko programa bat sustatu zuen, bai udaletan, bai elkarteetan.

Sortu zenez geroztik, Giza Eskubideen Zuzendaritzak hainbat programa garatu ditu Euskadin giza eskubideen kultura bultzatzeko eta hedatzeko, eta bakearen, bizikidetzaren eta balio demokratikoen aldeko politika multzo hori funtzionalki artikulatzen da zuzendaritza horren sustapen eta hedapen sistematikoko jarduerekin.

Hala, beraz, bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzako euskal plana etorri aurretik, aurrekariak martxan zeuden jada, eta euskal planak aurrekari horiekin lotzea eta gobernu-ekintza hori sistematiko eta iraunkor bihurtzeko jauzi kualitatiboa egitea ekarri zuen.

3.2.2. Bakearen eta Giza Eskubideen Aldeko Hezkuntzako Lehen Euskal Plana (2008-2011)

Bakearen eta Giza Eskubideen Aldeko Hezkuntzako Euskal Planaren sustraiei dagokienez, **Bake eta Bizikidetzaren Plana** aipatu behar da, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2006ko maiatzaren 2an onartua. Plan horrek giza eskubideen euskal ekintza-plana osatu zuen, Vienako ekintza-planak galdatzen zuen moduan. Giza eskubideen euskal planak, hortaz, konpromiso gisa hartu zuen hezkuntzaren arloko plana ere.

Giza Eskubideen eta Bakearen Hezkuntzaren Aldeko Euskal Plana sortzeko, 2006ko urriaren 17an, Giza Eskubideetan Oinarritutako eta Bakearen Aldeko Hezkuntzaren Sailarteko Batzordea sortu zen, Jaurlaritzaren Kontseiluaren Akordio baten bitartez. Akordio horren 2. artikulua azpimarratzen du batzordearen funtsezko betebeharrak: alegia, Giza Eskubideetan eta Bakean Oinarritutako Hezkuntzako Ekintza Plana diseinatzea eta egituratzea.

2007ko abenduaren 26an, Jaurlaritzaren Kontseiluak “Bakearen eta Giza Eskubideen Aldeko Hezkuntzako Euskal Plana 2008-2011” onartu zuen. Plan horrek behin betiko lan-esparru egonkor, koordinatu, sistematiko eta etengabe bat ezarri zuen, hain zuzen, giza eskubideetan eta bakean oinarritutako kultura euskal gizartearen maila guztietara hedatzeko. Plana diseinatu eta pixkanaka idazteko prozesuak gutxi gorabehera hamalau hilabete iraun zuen; Giza Eskubideen Aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoak horrelako prozesuetarako egokitzat jotzen duen epearen barnean egin zuten, beraz.

Plan orohartzaile bat izateak berebiziko garrantzia zuen esparru horretan, haren bitartez antolamendua eta, haren ondorioz, eraginkortasuna lortzen zuten neurrian. Une horretara arte bagenuen bakearen aldeko hezkuntzaren eta giza eskubideen aldeko kultura sendotzeko beharraren inguruko adostasun orokor bat, baina kontzientzia hori, borondate ona gorabehera, sakabanatuta zegoen. Koordinatu gabeko ekimen gehiegi

zeuden, ekimenak bikoiztu egiten ziren, eta ez zen ondo jakiten ekimenek nolako emaitzak ekartzen zituzten. Horixe gertatzen zen, gainera, bai gizarte-ekimenen kasuan, baita erakundeen ekimenetan ere.

Politika guztien lehenengo faseetan, hastea izan ohi da garrantzitsuena. Baina bigarren pauso ezinbestekoa izaten da nora goazen planifikatzea, koordinazioa eraginkorra izan dadin herrialde osoa antolatzea, eta diagnostikoa eta ebaluazioa egiteko elementu egonkorak jartzea, modu horretan izango baikara geure pausoen jabe eta hobeto neurtuko baititugu emandako aurrerapausoak. Hain zuzen ere, beharrezko azpiegitura hori eskaintzen zuen planak: organo espezifikokoak sortu zituen ekintzak sustatzeko eta gauzatzeko, ebaluatzeko, eztabaidatzeko, hobetzeko... baita jardueren mapaz ohartzeko eta ahaleginei ahalik eta etekinik handiena ateratzeko informazio egokia edukitzeko ere.

Planari esker, gizartearen parte-hartzea eta instituzioen arteko koordinazioa bermatu zuten. Aurreneko aldiz, euskal administrazioaren hiru mailak –Eusko Jaurlaritza, hiru foru-aldundiak eta udalak– batera ari ziren lanean. Bakoitzak bere autonomia eta espezifikotasunei eutsiz, baina denak batera. Gizarte zibilarekin bat egiteko funtsezko asmoa zuten, gainera.

Giza eskubideen eta bakearen aldeko planari esker, nazioartean azaltzea lortu zuten. Plana zorrotz eta zehatz-mehatz bat zetorren Giza Eskubideen Aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioak, UNESCOk eta Europako Kontseiluak sustatzen duten plan-ereduarekin. Eta, horregatik, erakunde horiek sustatzen ari ziren Jardunbide Egokien Compendiumean jardunbide egokitzat txertatzea lortu zuten³.

³ Council of Europe/OSCE/ODIHR/UNESCO/OHCHR, *Human Rights Education in the School Systems of Europe, Central Asia and North America: A Compendium of Good Practice*, Warsaw, 2009, 17-18. or. Hona hemen Compendiumak planari buruz txertatzen duen informazioa:

Name of Practice: 2. Basque Education Plan for Peace and Human Rights (2008–2011)

Name of Organization: Human Rights Directorate, Department of Justice, Work and Social Security, Basque Government

Donostia-San Sebastián, 1, Vitoria-Gasteiz 01010 SPAIN

Website: <http://www.Euskadi.net>

Phone: + 34 945 019089

Intended Audience: Educational policymakers, educational personnel, teachers, civil-society organizations, the media and the general public

Purpose: The Basque Education Plan for Peace and Human Rights aims to engage a range of stakeholders in the implementation of human rights education, citizenship education and education in mutual respect and understanding. Stakeholders include formal and non-formal educational agents, local and regional authorities, NGOs, the media and the public in general.

The need to promote and protect human rights, promote social cohesion and improve individual well-being provided the fundamental stimulus for developing the Plan. The Plan was then developed following a diagnosis of the state of human rights in the Basque region and an intense participatory process involving consultations with different governmental (at both regional and municipal levels) and non-governmental stakeholders.

Description: The practice is a national human rights action plan following guidelines from the Office of the United Nations High Commissioner for Human Rights. The Plan seeks to identify steps whereby the Basque Country can use education as a means to improve the promotion and protection of human rights.

The Basque Education Plan for Peace and Human Rights has four main strategic goals: to raise social awareness about human rights; to educate society about human rights; to enforce institutional work in human rights and peace education; and to co-ordinate policies of peace education and human rights in the Basque Country.

Participating organizations comprise a broad set of governmental departments, including the Department of Education, the Directorate of Youth and Community Action, the Directorate of Human Rights, the Directorate for Attention to Victims of Terrorism, the Directorate of Immigration; the Basque Television and Radio Public Entity

Lehenengo aldiz sartu zituzten nazioarteko estandarren definizio eta printzipioak, antolatzeko eta kudeatzeko proposamenak, eta ebaluazioa eta diagnostikoa egiteko irizpideak. Horri esker, geure burua erakutsi ahal izan genuen bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloko nazioarteko korranteetan, eta errazagoa izango zen, alde batetik, beste herrialdeetako jardunbide egokiak ekartzea eta, bestetik, guk geuk ere gure ekarpenetara egitea. Baina, batez ere, oinarri sendoak jarri zituzten epe ertain eta luzean gaia eztabaida partidistetatik ateratzeko. Giza eskubideen inguruko lan sistematikoaren arloan, ia dena asmatuta dago. Norabide egokia hartzeko, nahikoa da kontzeptu eta printzipioak definituak dituzten nazioarteko ibilbide handietan sartzea. Hain zuzen ere, horixe lortu nahi izan zuten planaren bitartez; alegia, nazioarteko erakundeek –haien aginpide eta esperientziari esker gaia guztion gai bat izateko aurrera egiten lagunduko zigutelakoan– betiere ekimenak gure lan-tradizioetan txertatzea, baina gure espezifikotasunei eutsiz.

Lehen aldiz, ia 30 urteko autogobernuaren ostean, horrelako plan bat izatea lortu zuten, eta 90 jardun-programa baino gehiago bildu zituzten bertan (Eusko Jaurlaritzarenak ziren haietako 70): prestakuntza- eta trebakuntza-programak, zinemaren edo antzerkiaren bitartez esku hartzeko programa berriak, eta baita hitzarmenak, dirulaguntzak edo giza eskubideen ikuspegia oinarri hartuta Euskadiko egoera soziopolitikoari buruzko berariazko programak bultzatzeko programak ere. Eta horrek guztiak ia 6 milioi eta erdiko aurrekontu globala izan zuen; aurrekontu horren barnean sartu zuten diagnostikoaren eta ebaluazioaren kultura, alor hori politika serio bihurtu dadin, garapenaren norabidearen eta abiaduraren berri izanik.

(EITB); the Network of Town Councils (EUDEL); and the Provincial Councils of Bizkaia, Gipuzkoa and Araba. In parallel, and mainly as a consequence of this process, a network of NGOs working on peace and human rights education was established to create synergies and reinforce actions included in the Plan.

The Plan is based primarily on non-formal approaches but also incorporates actions specific to the school system. School-focused programming involves the Education for Coexistence, Peace and Human Rights Programme (2007–2010). The Programme’s main objective is to promote the inclusion and practice of human rights in both primary and secondary schools through the use of democratic practices and methodologies, the development of appropriate guidelines and learning materials, and the education and professional development of teachers and other personnel. To meet these goals, an observatory on coexistence was established in school centres, and a specific Department of Education unit was created to catalyze and co-ordinate efforts and to give proper follow-up support to schools.

Non-formal learning programmes for youth employ initiatives focused on the training of young leaders on the themes of peace and human rights, the development of extra-curricular activities, and the generation of financial support for

NGOs for a range of activities, such as student exchanges, cinema, theatre, co-operative games, exhibitions and summer camps.

Strengths: The Basque Education Plan for Peace and Human Rights is based on an analysis of the human rights situation in the Basque region and illustrates a consultative process for developing a national plan of action for human rights. In implementing peace and human rights education, the Plan includes a range of

governmental and civil-society organizations whose relationships were strengthened through the Plan’s development process.”

The Plan itself is clear and precise, providing a ready blueprint from which results can be monitored and evaluated as it is put into action.

Adaptability: Although the human rights analysis, Plan objectives and actors are specific to the Basque region, the consultative process and format of the report are models that can be used in other national contexts.

Availability: An English-language version of the Plan and the Spanish-language version of evaluation of the Plan are included in the Compendium Annex. Basque-, English and Spanish-language versions of the Plan can be found at <http://www.juslan.ejgv.euskadi.net/r45-19299/es>.

This website also contains documentation on the analysis leading to the development of the Plan (in Spanish) and suggested steps for the preceding year (2007) of implementation (in both English and Spanish).

Planaren egiturari dagokionez, lehen atalean (DESKRIPZIOAREN ATALA izenekoan), planaren aurrekariak, testuingurua eta diagnostikoa azaldu zituzten. Bigarren zatian (ATAL SUBSTANTIBOA), dokumentua egituratzen duten oinarritzko aukera politikoak deskribatu zituzten. Azken batean, helburu nagusia, printzipio gidariak eta ildo estrategikoak zehaztu zituzten atal horretan.

Alegia, planaren helburua da giza eskubideetan oinarritutako eta bakearen aldeko hezkuntza bat bultzatzea euskal gizartean, eta eskura ditugun baliabideak optimizatzea eta sektore estrategikoen artean beharrezkoak diren sinergiak sortzea. Baita jardun-programa sistematiko, koordinatu, etengabe eta iraunkor bat sortzea ere, giza eskubideetan oinarritutako eta bakearen aldeko kultura sustatzeko eta hedatzeko, kultura horri buruzko *informazioa emateko* eta kultura horretan *trebatzeko*. Epe ertainean, zera lortu nahi da: informazioak eta trebakuntzak poliki-poliki *jarrera-aldaketa bat ekartzea* biztanleriaren sektore zabaletan.

Helburu orokor horren bitartez, honako hauek lortu nahi dira:

- *Euskal gizarteak* giza eskubideak hobeto ezagutzea, baita eskubide horiek ingurune hurbilean zer egoeratan dauden jakitea ere; modu horretan, giza eskubideak ezagutzea, babestea, gauzatzea eta sustatzea bultzatzeko, eskubide horiek urratzen direnean.
- *Herri-administrazioak* giza eskubideetan oinarritutako eta bakearen aldeko hezkuntzako politika publikoen buruan jartzea, behar bezala koordinatuta, eta politika horiek dauden baliabideen aprobetxamendu egokia bermatzea, baita beharrezko baliabide eta programak sor daitezen bermatzea ere.
- *Gizarte- eta hezkuntza-egitura* aktiboa izatea, giza eskubideak zabaltzeari eta sustatzeari dagokionez, eta gizartea giza eskubideetan oinarritutako eta bakearen aldeko hezkuntzaren esparruan trebatzea.
- *Komunikabideak* –nagusiki titulartasun publikoa dutenak– giza eskubideen eta bakearen zabalkunde-lanean eta pedagogia aktiboan bereziki aktiboak izatea.

Giza Eskubideetan Oinarritutako eta Bakearen Aldeko Hezkuntzako Euskal Planaren printzipio gidariak honela banatzen dira: printzipio orokorrak, printzipio substantiboak eta antolamendu-printzipioak. Printzipio orokorrak nazioarteko organismoek proposatzen dituzte horrelako planen kasuan. Printzipio substantiboek planaren ildo estrategikoen berri ematen dute; antolamendukoek, berriz, plana nola ezartzen den azaltzen dute.

Hala, bada, honako printzipio gidari substantibo hauek nahitaezkoak eta nahikoak dira helburu nagusia lortzeko:

- Duintasunaren printzipioa.
- Erantzukizun publikoaren printzipioa.
- Gizarte-arloko parte-hartzearen printzipioak.

Planaren helburua eta printzipio gidariak aurkeztu ostean, oinarritzko lau ildo estrategiko aurkezten ditu planak, eta bakoitzak bere helburu orokor eta berariazkoak ditu. Gainera, lau ildo estrategiko horiek baliagarriak izango dira aurrerantzean planaren atal operatiboari dagozkion jardunak antolatzeko:

- *Gizarte-sentsibilizazioa*. Helburu orokorra: bakearen eta giza eskubideen kulturaren balioak hedatzea euskal gizartean.
- *Gizarte-trebakuntza*. Helburu orokorra: euskal gizartea giza eskubideen eta bakearen aldeko hezkuntzaren eremuan trebatzea.
- *Erakundeen trebakuntza (ahalduntzea)*. Helburu orokorra: instituzioen eta erakundeen lana indartzea giza eskubideen eta bakearen aldeko hezkuntzaren esparruan.
- *Koordinazioa (bultzatzea)*. Helburu orokorra: giza eskubideetan oinarritutako eta bakearen aldeko hezkuntzako politikak gidatzea Euskadin.

Azkenik, hirugarren atalean, atal operatiboan, sektorekako programak ezarri zituzten erakundeen eremuan esku hartzeko; zehatzago, Eusko Jaurlaritzaren sei programa, foru-aldundien hiru programa (bana), eta udalen programa bat –EUDEL–. Programa horietan, eragile arduradunak identifikatu zituzten, eta bakearen eta giza eskubideen aldeko kultura zabal eta indartsuago bat arian-arian errotu dadin zer ekintza garatuko den zehaztu. Guztira, ia 90 ekintza edo jardun-programa identifikatu zituzten, eta Eusko Jaurlaritzarenak dira haietatik 70. Hona hemen ekimen esanguratsuenak:

- Trebakuntzako askotariko programak garatzea GKEetako kideentzat, izendapen politikoko karguentzat, espetxeetako funtzionarioentzat, polizientzat, komunitateko gazte lider bitartekari entzat, irakasleentzat eta abarrentzat.
- Diru-laguntzen programak elkarte, udalerri, ikastetxe eta bereziki gazteei zuzendutako proiektuentzat.
- Beka-programak.
- Giza eskubideetan oinarritutako eta bakearen aldeko hezkuntzan zinemaren bitartez esku hartzeko programa.
- Giza eskubideetan oinarritutako eta bakearen aldeko hezkuntzan antzerkiaren bitartez esku hartzeko programa.
- Giza eskubideetan oinarritutako eta bakearen aldeko hezkuntzan esku hartzeko programa, EITBren eta, bereziki, BETIZUren bidez.
- Giza eskubideetan oinarritutako eta bakearen aldeko hezkuntzan esku hartzeko programak, kultura arteko ikuspegia bereziki kontuan hartuta.
- Giza eskubideen eta terrorismoaren biktimen arloko proiektu pilotuak (unitate didaktikoak).
- Giza eskubideen eta bakearen arloko oinarritzko testuen dibulgazio-argitalpenei bultzada bat ematea.
- Giza eskubideen eta biktimen arloan unibertsitate-ikasketak sustatzea.

- Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloko praktika egokiei buruzko jardunaldiak elkarte eta udalentsat.
- Nazioarteko mintegiak.
- Giza eskubideen eta bakearen aldeko nazioarteko erakundeekiko hitzarmenak indartzea.
- Sentsibilizazio-kanpainak garatzea.

Baina, agian, proiektu nagusitzat har daiteke giza eskubideetan oinarritutako eta bakearen aldeko hezkuntzaren arloko Baliabideen, Aholkularitzaren, Laguntza Teknikoaren eta Informazioaren Zentroa garatzea eta sendotzea.

Horretaz gainera, hirugarren atal horretan, egitura organiko zehatz bat ezarri zuten. Batetik, Giza Eskubideetan Oinarritutako eta Bakearen Aldeko Hezkuntzaren Sailarteko Batzordeak (Eusko Jaurlaritza) eta, bestetik, Giza Eskubideetan Oinarritutako eta Bakearen Aldeko Hezkuntzaren Kontsulta Kontseiluak osatzen dute. Egitura horren ardura zen plana behar bezala betearaztea lau urteko epean (2008-2011).

Azkenik, planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko irizpideak eta arduradunak aipatzen ditu planak, baita zeregin horietara bideratutako aurrekontua ere: guztira, ia 6,5 milioi euro. Hain zuzen, Eusko Jaurlaritzari dagozkio ia 5,6 milioi, eta foru-aldundiei, berriz, 850.000 euro.

3.2.3. Birformulazioa

2010eko maiatzean indarrean zegoen Euskal Plana moldatu egin zuten. Haren ordeaz, honako izen hau eman zioten: Bizikidetasun Demokratikoa Sustatzeko eta Indarkeria Deslegitimatzeko Plana (2010-2011). Aldaketak eragina izan zuen, izenean ez ezik, bai printzipioetan, bai helburuetan, bai ildo estrategikoetan, bai atal substantiboan, bai atal operatiboan. Aldaketen muina zera da: ETaren terrorismoaren aurkako borrokan laguntzea hezkuntza-mailan. Terrorismoa ez omen zen behar bezala kontuan hartzen planaren jatorrizko bertsioan, eta, hori dela eta, gai hori agerian jarri nahian, terminologia aldatu eta terrorismoari buruzko unitate didaktiko berri batzuk plazaratu zituzten.

Birformulazioak baditu bi alderdi, nagusiki, kritika egiteko: bata, positiboa, bere horretan utzi izana planaren egitura organikoa eta jatorrizko diseinua. Alegia, planak bazuen abantaila handi bat; izan ere, lehenengo aldiz, Eusko Jaurlaritzaren menpe koordinaturik zeuden hezkuntza mota horretan parte hartzera deitutako guztiak (eskola formala, ez-formala, informala, gazteen taldeak, gobernuz kanpoko erakundeak, gurasoak, udal taldeak, erakundeak –hiru administrazio-mailetan: udalak, aldundiak, Jaurlaritza–, komunikabide publikoak –EITB–, Arartekoa, unibertsitateak...). Aldi berean, Jaurlaritza bera egituratu egin zuten (sailen arteko batzorde baten bitartez, giza eskubideen zuzendaritzapean), eta Jaurlaritza eta kanpoko eragileak ere elkarrekin koordinatu zituzten (Kontseilua). Nazioartean parte hartzeko ezarrita zegoen antolaketan ere ez zen eraginik izan (Giza Eskubideen Arloko Goi Agintariarekiko harremana; Nazio Batuekikoa, alegia). Alegia, planaren bizkarrezurra bere horretan mantentzea ona da, eta, gero esango dugun bezala, etorkizunari begira, probetxuzkoa.

Baina kritikak ere badu alde txarra edo negatiboa: terrorismoa aipatzeko eta tratatzeko modua dela eta, planaren diskurtso-oreka galdu zen, bai hezkuntza-komunitatean, bai handik kanpoko gizartera izan zuen inpaktua dela eta. Hezkuntza ezin da borroka-tresna bat balitz bezala bultzatzen saiatu, ez behintzat kontsentsurik ez duten gai politiko zabal eta minberetan, eta, are gutxiago, gaiok zerikusirik baldin badute zuzeneko biktimekin.

Neure aburuz, plana birformulatzeak izan duen ondorioa zera izan da: itsasontzia ez da hondoratu, haren egitura eta bizkarrezurra mantendu delako, baina ibilbidea gelditu egin da, itsasontzian sartu den zamak geldiarazi duelako. Giza eskubideen aldeko hezkuntza, abian zena, baraturik dago, bai behinik behin gizartearen, eskolaren eta Jaurlaritzaren arteko harremanetatik begiraturik. Beste era batera esanda: “zeharkako” giza eskubideen eta bakearen aldeko hezkuntzatik “zuzenekora” igarotzeko moduaren eraginez, prozesua gelditua da aldi baterako.

4. Etorkizuneko erronka

Nazioarteko testuingurua ikusirik, testuinguru horretan Euskadik izan duen ibilbidea aurkezturik, nola heldu behar diogu etorkizunari? Zer salba daiteke egindako lanetik? Zer abiapunturi ekin behar zaio?

Neure ustez, lehenik, kontsentsua mantendu beharra dago nazioarteko errepide-orriari heltzeari begira. Alegia, denok onartu beharko genituzke, halabeharrez, handik datorkigun **definizioa** eta mota horretako hezkuntza antolatzeke **modua**. Horrek osa dezake lehenengo oinarri partekatua; ideologia guztiek partekatu ahal izateko oinarria, alegia. Ikus dezagun horrek noraino ematen gaituen (definizio orokorra, antolaketa politiko-instituzionala) eta nondik aurrera asmatu behar dugun bidea guk geuk, nazioarteko erreferentziarik ezaren poderioz. Bigarren gai horretan, eztabaidarako iradokizunak ematen besterik ez naiz ausartzen.

4.1. Giza eskubideen aldeko hezkuntza: definizioa eta erakunde-eredua

DEFINIZIOA. Giza eskubideen aldeko hezkuntzaren alorreko terminologia eta definizioa polarizazio politikoaren menpe egon da. Ikusi besterik ez dago lehenengo euskal planetik birformulaziora egin zen terminologia-aldaketa.

Terminologia-borrokak bukatu egin beharko lirateke. Giza eskubideen aldeko hezkuntzak izan behar du erreferentzia. **Giza eskubideak** ezinbesteko erreferentea dira justiziaren, askatasunaren, berdintasunaren eta elkartasunaren oinarrien gainean eraiki nahi den edozein gizarte- eta politika-antolamendu eredurentzat. Pertsona guztien giza duintasuna da balio gorena eta gizabanako bakoitzak gizartean dituen eskubide eta betebeharrak guztiak lotzen hasteko abiapuntua. Eta horixe ekin diote, hain zuzen, nazioartean, giza eskubideen hezkuntzaren garrantziaz jabetzeko eta hura bultzatzeko. Giza eskubideen aldeko hezkuntza dugu, hortaz, oinarri nagusia, eta, oinarri horren gainean, errepide-orri zehatzagoak diseinatu eta jorra ditzakegu gero (hala nola bake-hezkuntza, herritartasun demokratikoaren aldeko hezkuntza, ingurumen-hezkuntza, berdintasun-hezkuntza...). Hezkuntza berezituak giza eskubideen alor jakin bati buruzkoak dira, baina, lehenik, oinarria sortu eta egonkortu beharra dago: hots, giza eskubideen aldeko hezkuntza orohartzaile bat.

Hortaz, Nazio Batuen hamarralditik hona ezarri zen moduan, honako hau izan daiteke **giza eskubideetan oinarritutako –eta giza eskubideen aldeko– hezkuntzaren** definizioa⁴: “Giza eskubideen arloan kultura unibertsala sortzera bideratutako trebatze-, hedatze- eta informatze- jardueren multzoa. Jarduera horiek jakintzak transmitituz eta jarrerak moldatuz egiten dira, eta honako helburu hauek dituzte:

- a) Giza eskubideak eta funtsezko askatasunak ezagutzea eta haiekiko errespetua indartzea.
- b) Giza nortasuna eta gizakiaren duintasunaren zentzua erabat garatzea.
- c) Sexuen artean elkar ulertzea, tolerantzia eta berdintasuna sustatzea, eta herrialde, herri indigena eta talde guztien arteko adiskidetasuna bultzatzea, edozein arraza, nazio, etnia, erlijio eta hizkuntza edukita ere.
- d) Pertsona guztiek gizarte aske batean parte hartzeko aukera izan dezaten erraztea.
- e) Nazio Batuek bakeari eusteko abian jarritako jarduerak areagotzea”.⁵

⁴ Ikusi A/52/469/Add.1, 5. or.: “In accordance with those provisions, and for the purposes of the Decade, human rights education may be defined as training, dissemination and information efforts aimed at the building of a universal culture of human rights through the imparting of knowledge and skills and the moulding of attitudes, which are directed towards:

- (a) The strengthening of respect for human rights and fundamental freedoms;
- (b) The full development of the human personality and the sense of its dignity;
- (c) The promotion of understanding, tolerance, gender equality and friendship among all nations, indigenous peoples and racial, national, ethnic, religious and linguistic groups;
- (d) The enabling of all persons to participate effectively in a free society;
- (e) The furtherance of the activities of the United Nations for the maintenance of peace (see A/51/506/Add.1, appendix, para. 2).

⁵ **Bakearen aldeko hezkuntzak**, zentzu zabal batean, bere baitan hartzen du eta bat egiten du giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzarekin. Izan ere, bakearen aldeko hezkuntza, bake positibo gisa ulertua, zuzeneko indarkeriarik eza (bake negatiboa) baino askoz gehiago da. Hala, beraz, zuzeneko indarkeriaren maila txiki baterako eta justiziaren eta adiskidetze-kulturaren maila handi baterako joera sustatzera zuzenduta dago bakearen aldeko hezkuntza. Ildo horretan, indarkeria estrukturala eta kulturala desagerraraztea bilatzen da eta, aldi berean, gizarte-oreka eta guztion eskubideekiko errespetua lortu nahi da, berdintasunaren, justiziaren eta elkartasunaren lehentasunezko balioetan oinarrituta.

Bakearen aldeko hezkuntzak askotariko hezkuntza-alderdi osagarriak biltzen ditu:

- Balioetan oinarritutako hezkuntza eta hezkuntza etikoa.
- Hezkuntza soziala eta pertsonala.
- Gatazkan oinarritutako hezkuntza.
- Ulermen globalerako hezkuntza.
- Armagabetzearen aldeko hezkuntza.
- Kulturen arteko hezkuntza.
- Garapen iraunkorraren aldeko hezkuntza.

Honako helburu nagusi hau dute guztiek ere: pertsona baketsuak lortzea eta, era horretan, tolerantzian, errespetuan, pertsonen duintasunean eta garapenean, egian eta gizarte-justizian oinarritutako gizarte bat eraikitzea.

Hala, beraz, kontzeptuzko hainbat planoren ganean proiektatu behar da bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntza (elkarren artean lotuta daude plano horiek), sinbiosi emankor bat lortzeko, beharrezkoa baita. Izan ere, globalizazioaren fenomenoek, pertsonak nazioartean egiten dituzten mugimenduek eta ingurumenean eragiteko dugun gero eta ahalmen handiagoak behartzen gaituzte bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntza fenomeno horietatik eratorritako giza aldagaiekin osatzera. Zentzu horretan, giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzak **garapenaren aldeko hezkuntza, kultura arteko hezkuntza eta ingurumen-hezkuntza** izan behar du aldi berean, hiru adierazpenen zentzurik zabalenean.

Modu horretan, gaur egun, ezinezkoa da giza eskubideen aldeko hezkuntzaren programa bat egitea Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko bidegabekeriaren egiturazko arazoak aztertu gabe. Giza eskubideen aldeko hezkuntzak **garapenaren alderdia** eransten du; izan ere, eskubide zibil eta politikoen adinako premia eta maila dute eskubide ekonomiko, sozial eta kulturek ere, nazioartean adostu denaren arabera. Gaur egun, ezinezkoa da giza eskubideen aldeko hezkuntza bat ematea, nazioarteko elkartasunaren eta elkartasun horrek eragiten duen toki-adierazpenen aldeko hezkuntza bat eman gabe,

ERAKUNDE-EREDUA. Lehenengo planaren edukiak arestian aurkeztu ditugunean, jadanik azpimarratu dugu sarean lan egiteko egitura sortzen ahalegintzen direla Nazio Batuak –are gaur egun ere–. Gure herria prestatu egin behar dugu kanpoan dauden eragile kualifikatuekin gaiok lantzeko. Horrek zera eskatzen du, neure aburuz:

- Jaurlaritzaren baitako barne-antolaketa bat erakunde-maila ofizialean (gobernu-eta administrazio-mailen artekoa, erakunde ofizialen artekoa).
- Hezkuntza-eragileen arteko barne-antolaketa (eskola formalen eta unibertsitatearen artean).
- Barne-antolaketa bat bultzatzea hezkuntza formalarekin, ez-formalarekin eta informalararekin; batez ere, giza eskubideetan jarduten duten eragileei –eta, batez ere, gazte-elkarteei– begira: gobernuz kanpoko erakundeak, gazte-mugimenduak, guraso-elkarteak, komunikabideak, udaleko gizarte-talde antolatuak...).

Antolaketa horrek bi koordinazio-gune eskatzen ditu: batetik, Jaurlaritzaren barnekoa, sailen artekoa alegia (sailen arteko batzordea), eta, bestetik, kanpoko (kontseilua). Kontseiluak honako erakunde hauek ordezkatzen ditu: hiru administrazio-mailak (Jaurlaritza, aldundiak eta udalak), hezkuntza formala (eskola eta unibertsitatea), giza

hau da, arreta eman behar zaie euskal gizartearen moduko gizarte garatuetan gertatzen diren laugarren munduko egoeren arretaz ari gara.

Era berean, guztiz beharrezkoa da aintzat hartzea euskal gizartearen plurala dela gaur egun, eta gero eta kultura-, erlijio- eta hizkuntza-aniztasun handiagoa duela. Ezberdinen arteko bizikidetasunak gizarte-eskubideen interpretazio tradizionala berriz aztertzeko beharra sortzen du. Interpretazio berri hori inklusiboa eta **kultura artekoa** izango da. Giza eskubideen aldeko hezkuntzak ezin du multikulturaltasunaren aldagaia ukatu, eta kulturarteako konponbideak bultzatu behar ditu ezberdintasunak errespetatzeko eta babesteko, eta gizartearen kultura-adierazpen askotarikoen artean elkarriketa bultzatzeko. Aniztasuna, borroka eragiten duen alderdi bat izan beharrean, gure gizartearen aberastasuna eta pixkanaka irekitzea eragingo duen faktore gisa hartu behar da, eta, horretarako, gatazkei heltzeko eta giza eskubideak betetzeko formula berriak baliatu behar dira.

Azkenik, gaur egungo nazioarteko errealitateak behartzen gaitu gizakiok bizi garen ingurumenari buruzko parametroekin planteatzera giza eskubideetan oinarritutako hezkuntza. Hezkuntzak **ingurumen-hezkuntza** bat izan beharko du, bizitza ekologikora bideratutakoa, etorkizuneko belaunaldientzat ingurumena babesteko. Bestalde, naturarekiko errespetua balio sendo bat da, eta haren gainean eraiki daiteke bizitzarekiko errespetuan oinarritutako kultura, are eta munduko kulturen jarreraren errespetuan eraiki ere, bizitza defendatzen duten heinean. Esparru horretan, gizarte garatuek –eta, haien artean, euskal gizarteak– bide garrantzitsua egin behar dute oraindik. Bide hori, hein batean, giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzarekin hasiko da.

Nolanahi ere, **pertsonen duintasuna** da bakean, balio demokratikoetan eta giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzaren balio nagusia. Hala, pertsonak dira beren **existentziarekiko** errespeturik handiena bilatzen duen hezkuntza-politika horren balio nagusi. **Existentzia** gisa ulertzen da gizakion **bizitza** bera, giza eskubideek babestu beharreko lehenengo gauza eta berezko balio bat baita. Bizitza izango da, beraz, bakearen eta giza eskubideen aldeko edozein hezkuntza-politika eraikitzeko oinarria. Kontzeptu horretan biltzen da, ez bakarrik pertsona guztien bizitza abiapuntu utziezin gisa ulertuta, baizik eta baita bizitzeko baldintza duinak eta horretarako ingurumen egokia aintzat hartuko dituen bizitzaren kontzeptu zabalago bat ere.

Gizakion **existentziak** aipatzen ditugunean, bizitzak bere alderdi sozialean, politikoan, zibikoan eta kulturean hartzen dituen formez ari gara. Euskal gizartearen osatzen dugun pertsonok hainbat modu ditugu pentsatzeko, sentitzeko, hitz egiteko edo kultura adierazteko. Denborarekin, gizartearen gero eta askotarikoagoa da, eta, gizarte horretan, desberdinak diren arteko eragin-trukeak gero eta ohikoagoak dira. Gizarte horretan, elkarrekin bizi dira, gure mesederako, hainbat filosofia- eta erlijio-ikusmolde, hainbat kultura eta haiei dagozkien balio-eskalak, bakoitzaren jatorriaren edo gizarte-sektorearen arabera bereziak. Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren bidez, gizakion bizitza babestu ez ezik — bizitza hori existentzia huts gisa ulertuta—, gizarte ireki eta tolerantetatean gizakien bizimodu guztiak errespetatzea eta babestea ere lortu nahi da.

eskubideen aldeko erakundeak (Arartekoa, giza eskubideen aldeko institutuak...), gobernu kanpoko erakundeak (giza eskubideen eta bakearen aldeko hezkuntzarekin zerikusia duten GKEen foroa), komunikabideak (EITB, batez ere), eta nazioarteko erakunde ofizialak. Kontseilua ezin da gobernuaren menpean egon; alegia, gobernuak sustatu, finantzatu behar du, baina ez kontrolatu. Horretarako, ordezkariak eta presidentea aukeratzeko arauak blindatu egin behar dira. Baliabide-zentro indartsu eta ofizial bat izan beharko litzateke antolaketa ororen motorra, aholkularitza tekniko eta koordinazio-lana errazteko.

4.2. Giza eskubideen aldeko hezkuntza eta bakegintza: gaur eta orain

Giza eskubideen aldeko hezkuntzaren definizioaren eta antolaketaren gainetik, hezkuntza horrek gure herrian ukitu behar dituen edukiei begira ez dago kontsentsurako errepide-orririk nazioartean. Definizioetik at, printzipio batzuk besterik ez dituzte ezarri⁶;

⁶ Giza eskubideen hezkuntzaren aldeko ekintza-plan nazionalak lantzeko ildo nagusietan, honako printzipio hauek bildu dituzte (NBERen Giza Eskubideen Aldeko Goi Komisarioaren Bulegoa, A/52/469 dok./1. add.):

- a) Giza eskubideen arloko eta eskubide horien aldeko hezkuntza funtsezko giza eskubide bat da.
- b) Giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzak giza eskubide guztien errespetua eta babesa sustatu behar du, gizarteko kide guztientzako hezkuntza-jardueren bitartez.
- c) Giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzak giza eskubideen arteko mendetasuna, zatiezintasuna eta unibertsaltasuna sustatu behar du, eskubide zibil, kultural, ekonomiko, politiko eta sozialak barne, baita eskubide horiek garatzeko eskubidea ere.
- d) Giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzak emakumearen eskubideak eta genero-ikuspegia hartu behar ditu kontuan plan nazionalaren alderdi guztietan, giza eskubideen zati diren aldetik.
- e) Giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzak bere garrantzia aintzat hartu eta azpimarratu behar du; hain zuzen ere, demokrazia, garapen iraunkorra, legearen nagusitasuna eta bakea sustatzeko, eta ingurumena babesteko duen garrantzia.
- f) Giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzak onartu eta azpimarratu behar du eginkizun berezia bete behar duela eskubide horien urratzei aurrea hartzeko estrategia gisa.
- g) Giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzak arazo larri, egiturazko eta/edo sortu berriak aztertzea sustatu behar du, eskubide horiekin bateragarri diren konponbideak aurkitzeko.
- h) Giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzak eskubide horiek babesteko tresna eta mekanismoei buruzko jakintza sustatu behar du, baita horiek guztiak munduan, eskualdean, nazioan eta toki-eremuan aplikatzeko beharrezko ahalmena ere.
- i) Giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzak beharrezko baliabide guztiak jarriko ditu komunitate eta pertsona guztien eskura, funtsezko eskubideen alorrean dituzten premiak zehazteko eta premia horiek bete daitezen zaintzeko.
- j) Giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzak metodo didaktikoak lantzea sustatuko du. Jakintza, azterketa kritikoak eta giza eskubideak sustatzeko jarrerak garatzea bildu beharko dute metodo horiek.
- k) Giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzak printzipio orokorretan oinarritutako material didaktikoari buruzko ikerketak eta prestaketak bultzatuko ditu.
- l) Giza eskubideetan oinarritutako hezkuntza ahaleginduko da ikasteko ingurune egokiak —premiarik eta beldurrik gabekoak— sustatzen, parte-hartzea, giza eskubideak baliatzea eta giza nortasuna erabat garatzea sustatzeko.
- m) Plan nazionala [Euskal Ekintza Plana] lantzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko prozedura eta praktika guztiak honako hauek bermatu behar dituzte:
 - I. gizartearen ordezkari pluralista, gobernu kanpoko erakundeak barne,
 - II. eragiketen gardentasuna,
 - III. kudeaketa publikoaren erantzukizuna, eta
 - IV. parte-hartze demokratikoa.
- n) Gobernuko agintari guztiak giza eskubideekiko errespetua agertzen duten erakunde guztien independentzia eta autonomia errespetatu beharko dute plan nazionala gauzatzeko orduan.

hori bai, giza eskubideen tratamendua “zatiezina” dela azpimarratu dute. Alegia, ezin da lehenetasun politikorik ezarri giza eskubideen tratamenduan, dela giza eskubide batzuk besteen gainetik jartzeko (hierarkiarik ez), dela eskubide batzuk kontuan ez hartzeko (giza eskubideen maularik ez): alegia, denak serio hartu behar dira, maularik egin gabe, hierarkiarik gabe, egitarau politikorik gabe. Laburbildurik: giza eskubideak, oro har, eta baita hezkuntza-mailan ere, zatiezintasunaren, unibertsaltasunaren eta elkarren arteko mendetasunaren (interdependentziaren) printzipioei helduta ulertu behar dira. Hortaz, giza eskubideen urraketa guztiak, belaunaldi guztietakoak, eta diskriminaziorik egin gabe tratatu behar dira. Gai jakin batzuen gainean (emakumearen bereizkeria, esate baterako) aritzeak ez du esan nahi oreka eta printzipioak apurtzen direnik, betiere hezkuntza-mailan planteamendu orohartzailea behar bezala zainduta baldin badago sektorekako tratamenduak ez duela maularik egin nahi.

Gai guztiak berdintasunean landu behar direla alde batera utzita, Nazio Batuek bi ikusmolde mota azpimarratu dituzte: ikusmolde kritikoa (gatazken sustraietara joatea gomendatzen duena) eta ikusmolde aurre-hartzailea⁷. Alegia, aurre hartzea du helburu giza eskubideen aldeko hezkuntzak. Hona hemen, hortaz, hezkuntza bakegintzarekin lotzeko ideia funtsezko bat, Munduko Programaren Ekintza Planak berak (2010-2014 aldiari dagokiona; indarrean dago gaur egun) hasiera batetik giza eskubideen hezkuntzaren helburu nagusiarekin identifikatzen duena:

La comunidad internacional ha expresado cada vez más el consenso de que la educación en derechos humanos contribuye decisivamente a la realización de los derechos humanos. La educación en derechos humanos tiene por objeto fomentar el entendimiento de que cada persona comparte la responsabilidad de lograr que los derechos humanos sean una realidad en cada comunidad y en la sociedad en su conjunto. En ese sentido, contribuye a la prevención a largo plazo de los abusos de los derechos humanos y los conflictos violentos, a la promoción de la igualdad y el desarrollo sostenible y al aumento de la participación de las personas en los procesos de adopción de decisiones dentro de los sistemas democráticos. (A/HRC/15/28, 6. orrialdea)

Eta horixe da, esan dezagun, nazioarteko kontsentsutik geure tokiko planteamendua egiteko eskuratu dezakegun guztia. Hemendik aurrera, guri dagokigu kontsentsua sortzea, “aurre hartzeko” eta “ikusmolde kritikoz jarduteko” agindupean. Eta, ildo horretatik, bi galdera nagusi planteatu nahiko nituzke: batetik, zer funtzio bete behar du giza eskubideen aldeko hezkuntzak gatazka eta zatiketa bizi duten gizarteetan? Eta bestea: zer eduki “propio” sartu (bai ala ez) beharko genuke?

BAKEGINTZA. Indarkeria politikoa bizi (izan) duten gizarteetan, bakegintza edo bake-prozesua abiatzen dutenean, zenbait fasetatik igarotzen dira. Faseok hirutara laburbil

o) Plan honen arabera gauzatutako hezkuntza-zereginak honako hauek sustatu beharko ditu:

- I. aniztasuna errespetatzea eta balioestea, eta edozein arrazoiren ondoriozko (arrazia, jatorri nazionala edo etnikoa, sexua, erlijioa, adina, baldintza soziala, fisikoa edo mentala, hizkuntza, sexu-orientazioa, eta abar) diskriminazio orori aurka egitea;
- II. hizkuntza eta portaera ez-diskriminatzaileak;
- III. iritzi-aniztasuna errespetatzea eta balioestea;
- IV. parte-hartzean oinarritutako trebatze- eta ikas-metodoak;
- V. giza eskubideen inguruko arauak eguneroko portaeran islatzea;
- VI. irakasleen trebakuntza;
- VII. ahalmen eta eskumen nazionalak sortzea eta indartzea, plana eraginkortasunez gauzatzeko.

⁷ Ik. aurreko oin-oharreko “f” eta “g” printzipioak.

genitzake: hasierako fasea, eraldatze-fasea eta berreraikitze-fasea. Hasierako fasean, indarkeriaren egoera errotik aldatzen da, dela une horretara arte izandako zapalketa guztiz iraultzen delako, dela aldean arteko gatazka armatua (guztiz edo nabarmen) gelditzeko bidean sartzen delako, dela hilketak, atentatuak, mehatxuak, giza eskubideen aurkako urraketa larriak nabarmen gelditzen hasten direlako. Bestelako ñabardurarik gabe, hemen horretarako modurik ez dago eta, har dezagun hasierako fasetzat ETak aldarrikatutako behin betiko su etena, une horretatik aurrera ez baitago atzerabiderik status quo politikoan.

Bigarren faseak –orain murgilduta gauden fasea, agian– aldaketa ugari dakartza: erakundeetan, sistema politikoan, eztabaida publikoan... Hirugarren faseak, luzeenak, berreraikitzea izan beharko luke. Berriz adiskidetzea izan beharko litzateke helburua, bai maila kolektiboan (gizarte-zauriak sendatzen eta ixten ahaleginduz, teorian giza eskubideen errespetuaren oinarria behar duen gizarte berri baterantz), bai maila indibidualean (biktimen eta biktimak eragin dituzten pertsonen artekoa).

Gizartean apurtuta dauden harremanak konpontzeari begira, giza eskubideen aldeko hezkuntza tresna ezinbestekoa dugu berreraikitze-fasean, eta, horretarako, urratutako giza eskubideak tratatu egin behar dira. Izan ere, berreraikitzeak, ordena juridiko-moral berri bat eraiki beharra dago, inklusiboa edo barneratzailea izan behar duena eta aldi berean iraganean gertatu ziren urraketarik larrienak argi eta garbi identifikaturik uzten dituen, eta, ahal dela, egia, justizia eta kalte-konponketa handiena ematen duena.

Beste hitz batzuetan: berriz adiskidetzera egiten badugu, iraganeko giza eskubideen urraketarik handienak identifikatzea da osagaietako bat; alegia, egia atera, erantzukizunak ezarri, eta biktimak aitortu eta haien kaltea konpontzea. Hori bideratuta uzten ez bada gizarte-kontsentsu handi batez, ez da batere erraza izango kontsentsu oinarritzko hori lortzea eraikiko den gizarte-egitura eta egitura politiko berrian, non eta giza eskubideen kultura muina izan behar baita.

Hori eginez gero, egearik gabeko gatazkaren ondoren badu zentzua egia ateratzeak eta egia gainean ondorioak ateratzeak (justizia eta kalte konpontzea baita kalte gerta ez dadin neurriak hartzea: adibidez, tortura berri ere ez gertatzeko legezko neurriak, polizientzako trebakuntza-egitarau sistematiko eta ofizialak, giza eskubideen aldeko kultura bat jaso dezaten). Baina baita, etorkizunari begira, aurre hartzeko neurri orohartzaileagoak ere, dela erakunde-izaera dutenak (giza eskubideen institutu ofiziala, esaterako), dela giza eskubideen aldeko hezkuntzaren egitarau sistematiko bat haur, gazte eta helduentzat.

Euskal Herriko Euskadi politikoan, zein da egoera? Hasi besterik ez dugu egin bigarren fasetik aurrerako bidea. Eraldatze-fasean gabiltza: eztabaida politiko zabalagoa –inoiz baino zabalagoa– daukagu, mapa politikoa aldatzen ari da, baina hori guztia, konpondutako beste gatazka batzuekin konparaturik, gizarte-inplikazio apalarekin gauzatzen ari da (agian horrek badu zerikusia “bigarren transizio” kontzeptuarekin, orain gertatzen ari dena 1975-1978-1981 urteekin lotu behar baita zuzen-zuzenean).

Gauden fasean, esandakoaz aparte, bai presoen bai biktimen nondik norakoak lehenengo mailan daude: sakabanaketa eta urruntzea *versus* zigorrak oso-osorik betetzea modu eragingarri batean. Halaber, lehenengo mailan dago oroimenaren eztabaida: ea ETaren terrorismoak eta Estatuak egindako giza eskubideen urraketa larriak aintzat

hartu behar ote dituen oroimenak, nola aintzat hartu behar dituen, eta abar. Labur esanda: egiaren maila dugu gori-gorian, bai ikuspegi kolektibotik, eta baita, batez ere, ikuspegi indibidualetik (biktima zehatz eta zuzeneko mailatik) ere.

Beraz, giza eskubideen aldeko hezkuntza ere horretan sartu behar ote da? Sartuz gero, nola?

Bake-hezkuntzan –eta baita giza eskubideen aldeko hezkuntzan ere–, zeharkakoa eta zuzenekoa desberdindu beharra dago. Lehenengoa –zeharkakoa– ez baizik eta bigarrena –zuzenekoa– norberaren gatazka edo urraketez arduratzen da. Gure gizartean, zuzeneko hezkuntzaren edukian sar genitzake indarkeria politikoak eragindako urraketak eta gatazkaren kudeaketa. Zeharkako giza eskubideen hezkuntza lantzen denean, denok eduki dezakegu buruan –ispilu-efektuaren eraginez– gure herrian zer gertatzen den. Israelek egiten dituen erailketa selektiboak, palestinarrek jartzen dituzten lehergailuak, Estatu Batuek jardundako guda-tokietan gertatutako torturak... horrek guztiak, esaterako, eskola batean landuz gero, harremanak sortuko ditu hemen bizi ditugun arazoekin, baina zeharkako era batean. Jauzi kualitatiboa da, ordea, “gure” arazoei ekitea: terrorismoak sortutako biktimak, tortura, polizien gehiegikeriak, mehatxuak, beste ideologia-familiekiko mespretxua eta gorroto-diskurtsoa, eta abar.

Zuzeneko giza eskubideen aldeko hezkuntza modu sistematiko batean bultzatzeko unea izango dugu egiaren gainean akordio nahikoa lortzen denean. Irakurketa inklusibo eta partekatu bat egiten ez bada gizartean eta eremu politikoan gertatu diren urraketen gainean, ehuneko ehun ez izan arren, kontsentsu nahikoz, nolatan izango gara gauza gaiok eskoletara eramateko eskola demokratiko baten ikuspegitik?

Neure ustez, orain eta hurrengo bi-lau urteetan, egia-politikak bideratzeko modua izango dugu, eta orduan izango da zuzeneko giza eskubideen aldeko hezkuntzaren garaia. Bitartean, hona hemen, laburbildurik, aurretik kontuan izan beharko genukeen errepede-orria:

Erronken errepede-orria, laburbildurik:

1. Giza eskubideen aldeko hezkuntza landu beharraren kontsentsua sortu/egonkortu.
2. Giza eskubideen aldeko hezkuntza nazioarteko ereduarekin landu beharraren kontsentsua sortu/egonkortu.
3. Giza eskubideen aldeko hezkuntza lantzeko eredu instituzionalaren gainean kontsentsua sortu/egonkortu.
4. Giza eskubideen aldeko hezkuntza eta bake-hezkuntza “zeharkakoa”ren errepede-orria sortu/egonkortu, bai curriculumean (unibertsitatea barne), bai eskola formaleko beste ekintza batzuetan, bai hezkuntza ez-formalean eta informalean, baita irakasleen trebakuntzan ere.
5. Euskal Herriko indarkeria politikoaren gaineko politikak egiaren alorrean (biktimen multzoa, behinik behin) helduta egon arte, “zuzeneko” giza eskubideen aldeko hezkuntza eta bake-hezkuntza prestatuz joan (materialak, estrategiak, proiektu pilotuak, trebakuntza...), baina ez ezarri modu orokor eta sistematiko batean.

Eztabaidarako GALDERA-SORTA

1. Zer da, zure ustez, giza eskubideen aldeko hezkuntza?
 - Zein beste kontzepturekin (bake-hezkuntza, herritartasunaren aldeko hezkuntza...) lotzen duzu? Ba al da haien arteko ezberdintasunik? Kontzeptu guztiek tratamendu bateratu bat eskatzen al dute? Nola?
2. Giza eskubideen aldeko hezkuntza ba al da, zure ustez, landu beharreko esparru bat?
 - aldi baterako besterik ez?
 - modu iraunkor batean?
 - zer estrategiaz (curriculumeko ikasgaiak, eskola-orduetako ekintzak, eskola-orduz kanpoko ekintzak, kanpoko erakundeak ekartzea, kanpora begirako ekintzak antolatzea, guraso-mailan, irakasle-mailan...)?
3. Giza eskubideen aldeko hezkuntza eskola formalean landu behar da bakarrik?
 - Zer beste esparrutan landu beharko litzateke?
 - Beste esparruren batean landuz gero, nork eduki behar du lidergoa? Nola koordinatu beharko litzateke?
4. Zein izan behar dute giza eskubideen aldeko hezkuntzaren edukiak eta helburuak?
5. Giza eskubideen aldeko hezkuntza indarkeria politikoarekin lotzen duzu?
6. Euskal Herriko eskola formalean, honako gai hauek landu egin behar al dira? Batzuk besterik ez? Zein? Ezer ez? Zergatik? Hala denean, nola? Zer helburuz? Zer adinetan?
 - Oroimen historikoa
 - Espainiako guda zibila
 - Diktadura
 - Transizioa
 - ETaren terrorismoa
 - Polizien gehiegikeriak
 - Estatuaren terrorismoa, „inkontrolatu“en urraketak
 - Tortura
 - Presoen gaiak
 - Iraganeko indarkeria gainditzeko erronka/modua (ideologia eta politika-familia ezberdinen arteko talka-elkarbizitza...)
 - Bakegintza
7. Nola antolatu beharko litzateke irakasleak gaiotan trebatzea?
